

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egun enpresa askok teknologia berdina ekoizten dute eta lehia handia da, horregatik ezinbestekoa da balio bat sortzea, hau da, zerbait desberdina eskaintzea. Horretarako, gure produktuak izango dituen ezaugarri edo funtzio desberdinak nabarmendu beharko ditugu.

Gure enpresak eskeintzen duen produktua hasiera batean Tablet baten antza daukala pentsa dezakete bezeroek, baina desberdintzen ahalegi handiak egin ditugu gure produktuaren helburuak beste batzuk direlako. Aurkezten ari garen produktuaren zeregina koaderno baten funtzioak betetzea da, hau da, apunteak idaztea, ikasgaiak ordenatu eta desberdintzeko aukera izatea karpetak sortuz... Gehigarri asko eskeintzen ditugu hala nola: letra formatu eta tamaina dezberdinak, hitzak azpimarratzeko aukera, tablak eta grafikoak egiteko aukera besteak beste.

Beste aldetik, koaderno teknologikoak pantaila taktila dauka, baina idazteko teklatu batekin dator, buetoothen bitartez konektatzen dena pantailara. Aldi berean, bluetoothen bitartez apunteak partekatu daitezke. Horrez gain, USB sarrera bat dauka informazioa atera ahal izateko.

Gainera, gure produktuak hainbeste zailtasun eta arazo sortu dituen motxila ordezkatzeko du. Azkenean, ikasterakoan liburu eta koaderno asko erabiltzen ditugu eta horrek bizkar-arazoak sortzen ditu. Honetaz gain, koaderno eta liburuak ekoizteko paper asko behar da eta deforestazioa denborarekin handitzen doa, adibidez, Amazonasen kasuan. Abantailekin jarraituz, hainbeste fitxa, koaderno eta liburu antolatzea zaila izan daiteke, baina koaderno teknologikoak antolatzen lagunduko dizu, lehen aipatutako karpetak sortzeko aukerarekin. Gainera, prezio nahiko eskuragarria izango du produktuaren kalitatearekin konparatuta, 500€-koa izango dena. Horrez gain, eskaintzen ari garen produktua 5-7 urteko iraupena aseguratzen du eta bi urteko garantia dauka.

500€-ko erosketan hurrengo gauzak sartzen dira:

- koaderno
- teklatura
- kargadore
- Pen drive bat opari

\* fundak ere saltzen ditugu baina a parte doaz: tapa gabe 10€-ko eta taparekin 15€-ko prezioa dute.

Azkenik, gure produktuaren desberdintasuna izango da pertsonen arteko interakzio sarea. Sare honen bitartez, WIFI-a erabilia, pertsonen artean apunteak, lanak, ikasgaien inguruko informazioa eta mezuak bidali ahal dituzte beraien artean.